

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Handik gatoz



Igor Estankona

Nazien kontra borrokatu zen, koronelek gero bere poesia debekatu zuten, etxe barruan atxilotua egon zen, eta hala ere bere borroka kantak arnasa bezain naturalak, lasaiak ditu: “Nor geratuko ote da hemen gu oroitzeko/ entzun ditzagunean giltza sarrailan eta kate luzea/ arrastaka amaigabeko zurirantz, non, alde batean,/ artean kea baitario bota dugun azken zigarretari”.

Greziar denak daroa tradizioaren zama. Aurretik klasikoek idatzi zutena berriro klasiko bihurtzeko gaitasun itzela izan dute hango poetek. Sikelianosen eta Kazantzakisen irrintziak, Elitisen barkuen oihal zuriak itsaso urdinean, Seferisen su barea... *Munduko Poesia Kaiarak* delakoetara Joannes Jauregik orain dakarkiguna Yannis Ritsos handiaren (Monembasia, Peloponeso, 1909 – Atenas, 1990) poemak selekzioa da. Guztiz fin itzulia, guztiz fin hautatua: “Etorri nintzen muinora; geratu nintzen, ingurura begiratu, eta deiadar egin nuen./ Behean, harriak harrien kontra amildu ziren”.

Egoe itsasoaren gainetik hegazkinean miriada bat irla ikusten da. Txikienek ere osotasuna irudikatzen dute. Eta handienak eternoak dira, baina era berean berdeak. Ritsos berak ere laburbiltzeko eta sententziak idazteko joera dauka. Inoiz, oster, “idazmahai beltz irarria, zilarrezko bi argimutilak,/ haren pipa gorria. Besaulkian eserita dago, ia ikusezin...” hasten da esaten eta kapaz da hamabi poema idazteko Kavafisentzat. Esan liteke Ritsos kontatzen ari zaigula Iliada, eta era berean lirikoa eta arina duela ahotsa.

Poesia kaiera

YANNIS RITSOS

Itzultzailea: Joannes Jauregi

Susa, 2018

Yannis Ritsos greziar poeta (Monembasia, Peloponeso; 1909-Atenas; 1990).



Agian iradokitzen duen irrealitatea egiazkoa delako-edo, berdin ekar ditzake Grezia zaharreko argazkiak gaur egunera zein gaur-gaurko gaiak jantzi mitoaren erretorikarekin: “Zure lira eta burua soilik iritsi ziren/ Lesbosera,/ korrontearen indarrez. Zertarako, bada, zure kantua?/ Beharbada noizbait (eta orduan ere itxuraz) lotu zirelako argia eta iluna?/ Edo Musek zure Lira zintzilikatu zutelako izarren artean?/ Konstelazio honen azpian, uda honetan, pentsakor bizi gara”.

Oraina eta lehena, biak dira Ritsosen poesien klasiko: istorio epikoak eta poema lakonikoak gurutzatzen diren lekuan ibili gara antologia honetan barna. Kondentsaturik eman zaizkigu mendeak eta segundoak. ■